

GIPUZKOA

Giro bikaina 33. Sagardo Egunean

Sagardozaaleek Gipuzkoako sagardotegietako botilako sagardoa probatzeko aukera izan zuten

JOSU ARANBERRI | USURBIL.

20 mayo 2014
00:50



Jende ugari. Beste behin ere sagardo zale ugari gerturatu zen igandean Usurbila eta sagardoa edateaz gain dantza gaikideaz gozatzeko aukera ere izan zuten.

Iragan da 33. edizioa ere. Usurbilgo Sagardo Egunak ez du mugarik, antza, eta aurtengoan ere giro ezin hobeia izan da botilako sagardoa gurtzen den egun honetan. Azken bi urteetako euri giroak atzean utzi eta aurtengoan eguraldi bikaina izan da. Eguzkia gori-gori, epeltasuna kalean eta barrenak freskatzeko, noski, nahi adina sagardo frontoian, dema plazan edota Askatasuna plazan.

Herriko baserrietako sagardoa edateko aukera izan zen igandeko festan frontoian. Gipuzkoako sagardogileen elkarteko sagardoak egon ziren dema plazan eta Askatasuna plazan, berriz, Eusko Labelean sartuta dauden sagardoak. Arratsaldeko 15.00ak inguru arte jendea postuz postu ibili zen, aurrez erositako basoa hartuta.

Sagardo Egunean ohikoa den bezala 11:30ean hasi zen festa. Hasteko, Eneko Balerdi eta Eneko Gil dantzarien saioa izan zen ohol-tza gainean. Sagardo Egunari hasiera ematen dion lehen botila irekitzeko ohorea, berriz, herriko sagardotegi batek izan zuen, Aginaga sagardotegiak eta bertako Jokin Errasti izan zen, antolatzaileek ohikoa den zapia jarri ostean lehen sagardo botila ireki eta lehen tragoa egin zuena. Hortik aurrera, sagardoa izan zen alkate beste behin ere.

Hala ere, izan zen igandean berrikuntza bat, sagardo botatzaileen lehiaketan hain zuzen ere. Orain arte ohol-tza gainean egiten zen lehiaketa, baina igandean epaimahai kideak postuz postu ibili ziren botatzaile onenak saritu asmo. Beraz, igandean sagardo botatzaile lanetan aritu ziren guztiak izan ziren lehiaketako partaide. Zuriko Latailladek eskuratu zuen lehen postua, Amaia Olasagastik bigarrena eta Iñaki Agirresarobe "Tolak" hirugarrena. Aurretik beraien erakustaldia egin zuten ohol-tza gainean.

Sagardorik banatu ez bazen ere, festarekin jarraitzeko aukera izan zen arratsaldean. Elektro txaranga ibili zen herriko kaleetan zehar eta pilotalekuan, berriz, erromeri giroa jarri zuen Ingo al Deu taldeak.

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuete, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com

Copyright © Digital Vasca S.L., San Sebastián, 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.